

[Cast/Eusk] Las reformas laborales que vienen

ADAM RADOMSKI | GEDAR.EUS :: 03/06/2020

Que el PSOE hable de derogar la reforma laboral, como si fuera algo independiente del conjunto de reformas, es puro cinismo, más cuando la anterior es suya

Castellano

“Las políticas de la austeridad no salen de la nada, sino que parten del escenario que los “pactos sociales” fueron configurando durante años y años, con participación de CCOO, UGT y por supuesto el PSOE.”

Recientemente pudimos leer en la prensa sobre una supuesta derogación de la reforma laboral de 2012, cuyos firmantes serían PSOE, Podemos-IU y EH Bildu. Sin embargo, a las pocas horas se vio que la cosa ha quedado en menos de lo que prometía el titular, que desde luego parecían palabras mayores. Pero hay ciertas cosas que parecen ocultas, precisamente porque las tenemos delante de nuestras narices, y merecen la pena ser comentadas.

Un breve repaso por las reformas laborales

Lo primero que debemos entender es que las reformas laborales han sido introducidas por los sucesivos gobiernos desde los Pactos de la Moncloa (1977). Dicho de manera muy resumida, supusieron una especie de consenso nacional que integraba a los sectores más aperturistas del franquismo con las diversas fuerzas políticas con representación parlamentaria, la patronal, CCOO¹ y UGT (aunque al inicio se opuso). El contexto es esencial para comprender el por qué: por un lado, una crisis económica, y por el otro, un movimiento obrero no domesticado y potencialmente revolucionario que impedía introducir los ajustes necesarios para hacer frente a una posible hiperinflación y, por tanto, a las dificultades de acumulación de capital. Entre los efectos de los Pactos podemos destacar la institucionalización del movimiento obrero, que supuso su pacificación, el despido libre (5% de la plantilla máximo) y algo que ahora nos es bien conocido: la contratación temporal. Ahora veremos que, de aquellos barros, estos lodos.

Mucho ha llovido desde entonces y ha habido unas cuantas reformas laborales desde aquel momento. Entre las variables estaría la participación —o no— de los sindicatos, queo no—o no— de los sindicatos, que de los sindicatos, que en alguna ocasión fueron excluidos de las negociaciones o no apoyaron los acuerdos. Por ejemplo, en 1994 González no contó con CCOO y UGT, quienes llamaron a la huelga general contra el gobierno, en respuesta a una de las reformas más duras: flexibilización de la contratación (movilidad geográfica, contrato de prácticas...). Además, con la prioridad de introducir a la juventud² en el mercado laboral, surgieron las Empresas de Trabajo Temporal. Pero, ya en 1997 estarían sentados de nuevo a la mesa, junto al gobierno y la patronal abaratando la indemnización por despido y la contratación fija.

Otra reforma importante fue la de 2008, cuando llegó otra crisis, aunque se retrasó por las negociaciones. Ante el riesgo de quiebra de muchas empresas, se abarató el despido (porque somos los primeros en pagar el pato), haciendo que FOGASA pagara parte de la

indemnización. También se introdujo la reforma de pensiones, se atrasó la jubilación a los 67 años y en general se fomentaba el empleo a tiempo parcial, como medidas para «salir de la crisis». En 2011 se dio prioridad al convenio de empresa frente al provincial.

La infame reforma del 2012

Y al fin, llegamos a la reforma que se dice querer derogar. Para ponernos en contexto: el Estado Español está en una dura crisis económica y va a pedir un rescate financiero y esta vez, en vez de del «diálogo social», el PP echa mano del decreto-ley, lo que obviamente no gusta a los sindicatos, que se ven excluidos de los «pactos sociales» en los que habían estado participando para las reformas anteriores. Pero, ¿por qué se iba a molestar la burguesía en contar con los sindicatos si su capacidad de movilización era mucho menor? Un par de datos: en 1978, poco después de los Pactos de la Moncloa, antes de la desmovilización masiva que los siguieron, el 54,37%³ de asalariados estaban afiliados. Sin embargo, para 2011 hablamos de cifras en torno al 15%⁴. Por eso ahora invocan los Pactos de la Moncloa, porque les han excluido del «pacto social», pero la verdad es que sus tiempos de oro han pasado.⁵

La reforma supuso en general una devaluación de los salarios como manera de afrontar la crisis ⁶, un despido aún más barato (33 días/ año trabajado, y otras lindezas como el contrato para emprendedores (un contrato fijo, pero con despido gratuito durante 1 año). Se facilitó el ERE y ERTE, se dio prioridad del convenio de empresa sobre el sectorial, y se penalizó el absentismo⁷.

En honor a la verdad hay que reconocer que la situación en la que estamos no es cosa del PP; las políticas de la austeridad no salen de la nada, sino que parten del escenario que los «pactos sociales» fueron configurándose durante años y años, con participación de CCOO, UGT y por supuesto el PSOE. A modo de ilustración de cómo estábamos y cómo estamos: en 1976 el despido tenía que estar justificado, y de no estarlo se tenía que readmitir al trabajador. La indemnización por despido podía llegar a ser de hasta 10 años. Hoy en día tenemos un máximo de 2 años y el despido improcedente en el mejor de los casos⁸. En cuanto a las pensiones, hemos pasado de 10 años cotizados (1985) a 37 (y subiendo) en 2020.

¿Derogar una reforma?

De hecho, ¿qué reformas laborales han sido derogadas hasta ahora? Solo las que han sido declaradas inconstitucionales, como la de 2002 (el « decretazo » de Aznar) . Al contrario, en vez de derogarse, ha habido cambios sobre diversos aspectos, mientras la totalidad seguía empeorando para la clase obrera. En cuanto a los sindicatos, si contrastamos las huelgas generales con las reformas, vemos que las primeras suelen ser convocadas en respuesta a las segundas y podemos concluir que la acción de CCOO y UGT ha sido, según pasaba el tiempo, cada vez más impotente ante ellas. Por no mencionar que la Ministra de Trabajo aseguraba⁹ en enero que técnicamente no se puede derogar la reforma laboral, y que en todo caso habría que ir cambiando aspectos de ésta. Además de que no tardaron ni un mísero día en desdecirse, lo antes expuesto da motivos para buscar claves más allá de la dicotomía entre derecha-izquierda, que suele llevarnos al voluntarismo y a hacer predicciones mecánicas.

Hablamos de una ofensiva sostenida en el tiempo, y por eso, si entendemos las «mejoras» (como la subida del SMI) junto al resto de medidas, veremos que hay trampa. Para comprender hacia dónde vamos, el programa del PSOE incluye la «Mochila Austríaca». Esto es, un fondo de capitalización individual, un fondo de pensión gestionado por entidades privadas donde cada mes iremos poniendo dinero, descontado de nuestro salario, para pagar nuestras indemnizaciones por despido, o como complemento de la jubilación en caso de no gastarlo. Dicho de otra manera, un despido casi gratuito, muy conveniente en momento de recesión y destrucción masiva de empleo y un intento de rentabilizar el sistema de pensiones. En cuanto a las jubilaciones, recordemos que siguen creciendo los años que tenemos que haber cotizado, con lo que se va a poner cada vez más difícil en un contexto en el que habrá menos trabajo. Está aún más crudo para el proletariado expulsado al margen de la sociedad, trabajando en negro o directamente desempleado de forma crónica.

Conclusión

Que el PSOE hable de derogar la reforma laboral, como si fuera algo independiente del conjunto de reformas, es puro cinismo, más cuando la anterior es suya. La supuesta derogación por sí sola no supone nada, cuando el conjunto de lo que pretende hacer la burguesía es mucho más pernicioso. Pero más allá del politiquero, la cuestión principal es el derrumbe del Estado de Bienestar. En conclusión, las prestaciones sociales que atacan las reformas laborales no son productivas en términos de valor, sino que suponen un gasto neto. Por ello, en este momento de crisis, se tienen que dismantelar, o bien hacer rentables, como las pensiones con la «Mochila Austríaca». Más ahora, cuando la tasa de ganancia tiende a caer por debajo del umbral que hacía posible el Estado de Bienestar. Por tanto, liquidar el Estado de Bienestar no es cuestión de «colores» sino que responde a necesidades estructurales del capitalismo, independientemente de quién gestione su desaparición. El PSOE es la vía socialdemócrata de ataque al proletariado, pero ataque, al fin y al cabo. Además, el grueso de la financiación estatal viene de la deuda contraída con acreedores privados, que imponen objetivos de déficit¹⁰, obligando de facto a los países a implementar recortes. Por eso, con una deuda engordada por la crisis del COVID, podemos anticipar un duro ataque a las prestaciones sociales —o no— de los sindicatos, que en general a nuestras condiciones de vida—, mientras que los retazos de la miseria que viene se nos presentan como triunfos. En último término, intentar racionalizar administrativamente la crisis del Estado de Bienestar supone subordinar la asistencia social a las necesidades del capital y por eso, es un callejón sin salida. Podemos pensar que se puede gestionar humanamente el capitalismo, pero en realidad siempre es el capitalismo, con sus leyes, quien siempre nos estuvo dominando.

En ese momento ya un sindicato vinculado al PCE, no un movimiento heterogéneo, como en sus inicios. Ya se intentó en 1988 pero una huelga general lo impidió. Kertsin Hamann “Afiliación, movilización y aliados políticos: las incógnitas del poder sindical español (1970-1988)” <https://www.rtve.es/noticias/20110303/afiliacion-sindical-espana-mas-bajas-union-europea/>

[413217.shtml](#) En 2019 se cifra la afiliación en un 13,7 según la

OCDE. <https://www.lavanguardia.com/economia/20191222/472401008593/sindicatos-afiliacion-trabajadores-espana-espana-ocde.html>

Recientemente firmaron un acuerdo con la patronal y el gobierno que suponía que en algunos sectores ni siquiera se tendría que mantener el empleo en los 6 meses siguientes al levantamiento del Estado de

Alarma. <https://www.expansion.com/economia/2020/05/11/5eb8f301e5fdeabd518b456e.html> **Recordemos que en los Pactos de la Moncloa se limitó la subida de salarios con el mismo objetivo, abriendo la puerta a la precarización.**

Este punto parece haber sido derogado a principios del 2020. Curioso que lo vendieran como un punto a derogar en las noticias cuando ya lo estaba. Es el artículo 52.d del Estatuto de Trabajadores. <https://www.boe.es/eli/es/rdl/2020/02/18/4>

El despido nulo es para casos de persecución política o sindical o de discriminación. O sea, los que

menos. https://elpais.com/economia/2020/01/25/actualidad/1579952826_515616.amp.html

No es de extrañar que EH Bildu haya pactado unos objetivos de déficit, diferentes en la CAV y Navarra diferentes al resto de administraciones. Podría significar amortiguar un poco el golpe, que tarde o temprano tendrá que llegar en toda su fuerza.

Recomendaciones y referencias

Sobre la «Mochila Austríaca»:

<https://encuentrocomunista.org/articles/ingreso-minimo-vital-y-mochila-austriaca-asistencialismo-envenenado/>
<http://www.luchadeclases.org/estado-espanol/62-movimiento-obrero/3246-la-mochila-austriaca-que-es-y-como-afecta-a-los-trabajadores.html><https://nuevocurso.org/la-mochila-austriaca-llega-a-espana/>

Sobre los Pactos de la Moncloa:

<https://www.elsaltodiario.com/partidos-politicos/emmanuel-rodriguez-isidro-lopez-nuevos-pactos-de-la-moncloa>

Cronología de las reformas laborales:

1- https://elpais.com/economia/2010/06/15/actualidad/1276587186_850215.html

Sobre la reforma de 2012:

<https://www.noticiasdenavarra.com/economia/2020/05/21/cambios-introdujo-reforma-laboral-pp/1048131.html?fbclid=IwAR3p50XgykA7d6NCIxmxBLZM-uGY3ztsJ8U9Di-5JpWE6plwRSmWQNLDfhs>

Sobre la quiebra del Estado de Bienestar:

Corsino Vela: “Capitalismo terminal. Anotaciones a la sociedad implosiva”, capítulo 6 “la quiebra del Estado de Bienestar”

Euskera

Duela gutxi, 2012ko lan-erreformaren ustezko indargabetzearen berri izan genuen prentsan, sinatzaileak PSOE, Podemos-IU eta EH Bildu ziren. Hala ere, ordu gutxiren buruan ikusi zen kontua titularrak agindutakoa baino gutxiagoan geratu zela, zalantzarik gabe hasieran hitz

handiagoak ziruditen. Alabaina badira ezkutatuta diruditen gauza batzuk, hain zuzen ere gure muturren aurrean ditugulako, eta merezi dute aipatzea.

Errepaso labur bat lan-erreformei

Lehenik eta behin ulertu behar dugu **Moncloako Itunen** (1977) ondoren etorri ziren gobernuak hasi zirela lan-erreformak sortzen. Labur esanda, erreforma horiek adostasun nazional moduko bat ekarri zuten, frankismoko sektore irekienak eta parlamentuan ordezkariak zuten indar politikoak, patronala, CCOO^[1] eta UGT (hasieran aurka agertu zen arren) barne hartzen zituen. Testuingurua funtsezkoa da zergatia ulertzeko: alde batetik, krisi ekonomikoa zegoen, eta bestetik, otzantzea lortu ez zuten langile-mugimendu potentzialki iraultzailea. Bigarren horrek eragotzi egiten zuen hiperinflazio posible bati eta, ondorioz, kapitala metatzeko zailtasunei aurre egiteko beharrezko egokitzapenak egitea. Itunen ondorioen artean aipa dezakegu langile-mugimendua **instituzionalizatu** izana, zeinak haren baketzea ekarri zuen, eta ondorioz langileen kaleratze librea (gehieneko plantillaren % 5) eta orain oso ezaguna zaigun zerbait: aldi baterako kontratazioa. Orain ikusiko dugunez, gerora eragin handia izan du horrek.

Urteak pasa dira ordutik eta lan-erreforma ugari egon dira une hartatik hona. Sindikatuen parte-hartzea —edo ez— izango litzateke aldagaietako bat; izan ere, kasuren batean negoziazioetatik kanpo utzi zituzten edo ez zituzten akordioak babestu. Esaterako, 1994an, Gonzalezek CCOO eta UGT sindikatuak kanpoan utzi zituen, eta haiek greba orokorrera deitu zuten gobernuaren aurka, erreforma gogorrenetako bati erantzuna emateko, hain justu, kontratazioa malgutzeari (mugikortasun geografikoa, praktika-kontratua...). Gainera, gazteak lan-merkatuan sartzeko lehentasunarekin^[2], **aldi baterako lanerako enpresak** sortu ziren. Baina 1997an jada berriro eseri ziren mahaian, gobernuarekin eta patronalarekin batera, **eta kontratazio finkoagatiko eta kaleratzeengatiko kalte-ordaina merkatu zuten**.

Beste erreforma garrantzitsu bat 2008koa izan zen, hain justu, beste krisi bat iritsi zen garaian, atzeratu egin bazen ere negoziazioen ondorioz. Enpresa askoren porrot arriskuaren aurrean, kaleratzea merkatu egin zen (ondorioak ordaintzen aurrenak garelako), eta FOGASari kalte-ordainaren zati bat ordainarazi zioten. **Pentsioen erreforma ere sartu zen, erretiroa 67 urtera atzeratu zen** eta, oro har, **lanaldi partzialeko enplegua** sustatzen zen «krisitik ateratzeko» neurri gisa. 2011n **lehentasuna eman zitzaion enpresa-hitzarmenari, probintzia-hitzarmenaren gainetik**.

2012ko erreforma zitala

Eta azkenean, indargabetu nahi omen den erreformara iritsi gara. Testuinguruan jartzeko: garai horretan, Espainiako Estatua krisi ekonomiko latzean zegoen, eta finantza-erreskatea eskatuko zuen; oraingoan, «elkarrizketa soziala» eskatu beharrean, PPK lege-dekretua erabili zuen, eta hori, jakina, ez zitzaien gustatzen sindikatuiei, aurreko erreformetan parte hartu zuten «itun sozialetatik» kanpo kokatzen baitzituen. Baina zertarako kontatu behar zuen burgesiak sindikatuarekin, azken horien mobilizatzeko gaitasuna askoz txikiagoa bazen? Datu pare bat: 1978an, Moncloako Itunak egin eta gutxira, ondoren etorriko zen desmobilizazio masiboaren aurretik, soldatapeko langileen % 54,37^[3] afiliatuta zeuden. Aldiz, 2011rako % 15^[4] inguruko zifrak ditugu. Orain, «itun sozialetik» kanpo utzi

dituztenez, Moncloako Itunak aipatzen dituzte; ordea, sindikatuen urrezko garaiak igaro dira. [5]

Erreformak, oro har, **soldaten debaluazioa** ekarri zuen krisiari aurre egiteko modu gisa[6], **kaleratze are merkeagoa** (33 egun lan egindako urte bakoitzeko), eta besteak beste, baita **ekintzaileentzako kontratua** ere (kontratu finkoa, baina urtebetez doan kaleratzeko aukera). Enplegu erregulazioko espedientea (EEE) eta aldi baterako enplegu erregulazioko espedientea (ABEEE) erraztu ziren, **enpresa-hitzarmenari lehentasuna eman zitzaion sektoreko hitzarmenaren gainetik**, eta absentismoa zigortu zen[7].

Egiari zor, aitortu behar da gauden egoera ez dela PPren kontua. **Izan ere, austeritate politikak ez dira ezerezetik sortzen; «itun sozialak» urte askoan zehar joan ziren osatzen**, CCOO, UGT eta, noski, PSOEn parte-hartzearekin. Nola geunden eta nola gauden erakusteko: 1976an kaleratzeak justifikatuta egon behar zuen, eta ez bazen hala, langilea berriz hartu behar zen lanean. Kaleratzeengatik kalte-ordaina 10 urte artekoa izan zitekeen. Gaur egun, gehienez 2 urte ditugu, eta kaleratze bidegabea kasurik onenean[8]. Pentsioei dagokienez, kotizatutako 10 urtetik (1985) 37 urtera (eta igotzen ari da) igaro gara 2020an.

Erreforma bat indargabetu?

Izan ere, zer lan-erreforma indargabetu dira orain arte? Konstituzioaren aurkakotzat jo direnak bakarrik, 2002koa adibidez (Aznarren «dekretutzarra»). Kontrara, **indargabetu beharrean, aldaketak izan ziren erreformaren hainbat alderditan, baina bitartean egoera orokorrak okerrera egiten zuen langile klasearentzat**. Sindikatuei dagokienez, greba orokorrak erreformekin alderatzen baditugu, ikus daiteke lehenak bigarrenen erantzuteko deitzen direla, eta ondoriozta dezakegu CCOOren eta UGTren ekintza, denborak aurrera egin ahala, gero eta ahulagoa izan dela haien aurrean. Are gehiago, Lan Ministroak urtarrilean adierazi zuen[9] teknikoki ezin dela lan-erreforma indargabetu, eta indargabetu izatera, erreformari aldaketak egiten joan beharko luketela. Egun bat ere ez zen pasa indargabetzearekin atzera egin zutenerako, eta horrez gain, lehen azaldutakoak arrazoiak ematen ditu eskuinaren eta ezkeraren arteko dikotomiaz haragoko gakoak bilatzeko, horrek boluntarismora eta iragarpen mekanikoak egitera eraman ohi baikaitu.

Ofentsiba iraunkor batez ari gara, eta horregatik, «hobekuntzak» (lanbide arteko gutxieneko soldataren igoera, adibidez) gainerako neurriekin batera ulertzen baditugu, amarruren bat badagoela ikusiko dugu. Nora goazen ulertzeko, datu esanguratsua da PSOEn programak «**Motxila austriarra**» barne hartzen duela, hau da, banakako kapitalizazio-funts bat, erakunde pribatuek kudeatutako pentsio-funts bat, hilero dirua jartzen joango garena, gure soldatatik deskontatuta, kaleratzeengatik gure kalte-ordainak ordaintzeko, edo, bestela, erretiroaren osagarri gisa, kaleratzeekin gastatzen ez bada. Beste era batera esanda, **kaleratzea ia doakoa da, oso komenigarria atzeraldi eta enplegu-suntsiketa masibo garaietan**, eta pentsio-sistema errentagarri bihurtzeko ahalegina. Erretiroei dagokienez, gogora dezagun kotizatu beharreko urteak igotzen ari direla, eta beraz, erretiroa lortzea gero eta zailagoa izango dela, lan gutxiago egongo baita. Are gordinagoa da egoera gizartetik kanpo kanporatutako proletarioentzat: beltzean kobratuz lan egiten dutenak edo zuzenean beti langabezian daudenak.

Ondorioa

Zinismo hutsa da PSOEk lan-erreforma indargabetzeaz hitz egitea, gainerako erreforma guztietatik independentea balitz bezala, are gehiago aurreko erreforma berea denean. **Ustezko indargabetzeak berez ez du ezer suposatzen, burgesiak egin nahi duena askoz kaltegarriagoa denean.** Baina politika kontuetatik harago, Ongizate Estatua desegitea da gai nagusia. Laburbilduz, lan-erreformek erasotutako gizarte-prestazioak ez dira produktiboak balioari dagokionez, gastu garbia baizik. Hori dela eta, krisi garai honetan, desegin egin behar dira, edo errentagarri bihurtu, «Motxila austriarra» duten pentsioak bezala. Are gehiago orain, irabazi-tasak Ongizate Estatua posible egiten zuen atalasearen azpitik egoteko joera duenean. Beraz, **Ongizate Estatua likidatzea ez da «kolore» kontua; kapitalismoaren egiturazko beharrei erantzuten die, desagerpen hori alderdi batek ala besteak kudeatu.** PSOE proletalgoari eraso egiteko bide sozialdemokrata da, baina azken finean, ez dio eraso izateari uzten. Gainera, Estatuaren finantzaketaren zatirik handiena hartzekodun pribatuekin duen zorretik dator, **zeinak defizit helburuak**^[10] inposatzen baitituzte, eta horrek herrialdeak *de facto* murrizketak ezartzera behartzen ditu. Horregatik, COVIDaren krisiak gizendutako zorrarekin, **gizarte-prestazioen —eta, oro har, gure bizi-baldintzen— aurkako eraso gogor bat aurreikus dezakegu**; bitartean, datozen miseria puskak garaipen gisa aurkezten zaizkigu. Azkenik, **Ongizate Estatuaren krisia administratiboki arrazionalizatzen saiatzeak** gizarte-laguntza kapitalaren beharren mende jartzea dakar, eta horregatik, **irtenbiderik gabeko arazoa da.** Kapitalismoa gizatasunez kudea daitekeela pentsa dezakegu, baina kapitalismoa da beti, bere legeekin, gu menpean eduki gaituena.

Gomendioak eta erreferentziak

“Motxila Austriarra”-ri buruz:

● <https://encuentrocomunista.org/articles/ingreso-minimo-vital-y-mochila-austriaca-asistencialismo-envenenado/>

● <http://www.luchadeclases.org/estado-espanol/62-movimiento-obrero/3246-la-mochila-austriaca-que-es-y-como-afecta-a-los-rabajadores.html>

• <https://nuevocurso.org/la-mochila-austriaca-llega-a-espana/>

Moncloako Itunei buruz:

● <https://www.elsaltodiario.com/partidos-politicos/emmanuel-rodriguez-isidro-lopez-nuevos-pactos-de-la-moncloa>

Lan-erreformen kronologia:

● https://elpais.com/economia/2010/06/15/actualidad/1276587186_850215.html

2012ko Erreformari buruz:

● <https://www.noticiasdenavarra.com/economia/2020/05/21/cambios-introdujo-reforma-laboral-pp/1048131.html?fbclid=IwAR3p50XgykA7d6NCIxmxBLZM-uGY3ztsJ8U9Di-5JpWE6plwRSmWQNLdfhs>

Ongizate Estatuaren porrotari buruz:

● Corsino Vela: “Capitalismo terminal. Anotaciones a la sociedad implosiva”, 6. kapitula “la quiebra del Estado de Bienestar”

[1] Une horretarako jada PCerekin lotutako sindikatu bat zen, eta ez mugimendu heterogeneo bat, hasieran bezala.

[2] 1988an saiatu ziren, baina greba orokor batek eragotzi egin zuen.

[3] Kertsin Hamann “Afiliación, movilización y aliados políticos: las incógnitas del poder sindical español (1970-1988)”

[4] <https://www.rtve.es/noticias/20110303/afiliacion-sindical-espana-mas-bajas-union-europea/413217.shtml> En 2019 se cifra la afiliación en un 13, 7 según la OCDE.

<https://www.lavanguardia.com/economia/20191222/472401008593/sindicatos-afiliacion-trabajadores-espana-espana-ocde.html>

[5] Duela gutxi akordio bat sinatu zuten patronalarekin eta gobernuarekin, horren ondorioz sektore batzuetan ez dago enpleguari eutsi beharrik Alarma Estatua kendu eta hurrengo 6 hilabeteetan ere. <https://www.expansion.com/economia/2020/05/11/5eb8f301e5fdeabd518b456e.html>

[6] Gogora dezagun Moncloako Itunetan helburu berarekin mugatu zela soldaten igoera, prekarizazioari atea irekiz.

[7] Badirudi puntu hori 2020. urtearen hasieran indargabetu zela. Bitxia da albisteetan indargabetu beharreko puntu bat balitz bezala saldu izana jada indargabetuta zegoenean. Langileen Estatutuaren 52.d artikulua da. <https://www.boe.es/eli/es/rdl/2020/02/18/4>

[8] Kaleratzea baliogabea da jazarpen politiko edo sindikalaren edo diskriminazioaren kasuetarako; hau da, oso kasu bakanetarako.

[9] https://elpais.com/economia/2020/01/25/actualidad/1579952826_515616.amp.html

[10] Ez da harritzekoa EH Bilduk Euskadin eta Nafarroan beste erkidegoetan ez bezalako defizit helburu batzuk hitzartu izana. Kolpea apur bat moteldu lezake, baina kolpea indar osoz iritsiko da lehenago edo geroago.

<https://eh.lahaine.org/cast-eusk-las-reformas-laborales>